

**ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA –
EMPRESA DE CERTIFICACIÓN Y SERVICIOS IZENPE, SA
2016ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari
dagozkion urteko kontu laburtuak**



ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA – EMPRESA DE CERTIFICACIÓN Y SERVICIOS IZENPE, S.A.

2016KO ETA 2015EKO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIEI
DAGOZKIEN BALANTZE LABURTUAK
(Eurotan adierazita)

<u>Aktiboa</u>	<u>Oharra</u>	<u>2016</u>	<u>2015</u>
Ibilgetu materiala	5.1	16.471	28.034
Aktibo ez-arruntak guztira		16.471	28.034
Izakinak		68.463	33.319
Merkataritzako zordunak eta kobratzeko bestelako kontuak / Salmenta eta	6/11	864.145	979.613
Bestelako zordunak	6/9	1.463	1.366
Epe laburrerako finantza-inbertsioak	6	505.980	305.980
Epe laburrerako periodifikazioak		29.712	40.964
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	6	762.419	364.425
Aktibo arruntak guztira		2.232.182	1.725.667
Aktiboa guztira		2.248.653	1.753.701
<u>Ondare garbia eta pasiboa</u>	<u>Oharra</u>	<u>2016</u>	<u>2015</u>
Funts propioak	8	1.873.391	1.222.465
Kapitala		1.200.000	1.200.000
Erreserbak		22.465	13.814
Aurreko ekitaldien emaitzak		-	(149.652)
Ekitaldiko emaitza		650.926	158.303
Ondare garbia guztira		1.873.391	1.222.465
Epe laburrerako zorrak			
Bestelako finantza-pasiboak	7	1.294	1.734
Merkataritzako hartzekodunak eta ordaintzeko bestelako kontuak			
Epe laburrerako hartzekodunak	7/11	207.757	298.370
Langileak (ordaintzeke dauden ordainsariak)	7	-	407
Bestelako zorrak administrazio publikoekin	9	90.582	168.295
Epe laburrerako periodifikazioak		75.629	62.430
Pasibo arruntak guztira		375.262	531.236
Ondare garbia eta pasiboa guztira		2.248.653	1.753.701

Erantsitako memoria 2016ko ekitaldiko urteko kontu laburtuen zati da.



ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA - EMPRESA DE CERTIFICACIÓN Y SERVICIOS IZENPE, S.A.

2016KO ETA 2015EKO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIEI
DAGOZKIEN GALDU IRABAZIEN KONTU LABURTUAK
(Eurotan adierazita)

	Ohar	2016	2015
Negozio-zifraren zenbateko garbia	10	3.513.274	2.899.625
Hornikuntzak	10	(1.497.528)	(1.433.455)
Bestelako ustiapen-sarrerak		-	126
Langile-gastuak	10	(934.865)	(928.956)
Bestelako ustiapen-gastuak	10	(415.640)	(357.467)
Ibilgetuaren amortizazioa	5	(11.563)	(19.640)
Bestelako emaitzak	10	(938)	(704)
Ustiapen-emaitza		652.740	159.529
Finantza-sarrerak		701	423
Finantza-gastuak		(2.429)	(1.599)
Truke-aldeak		(86)	(50)
Finantza-emaitza		(1.814)	(1.226)
Zergen aurreko emaitza		650.926	158.303
Mozkinen gaineko zerga	9	-	-
Ekitaldiko emaitza		650.926	158.303



ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA – EMPRESA DE CERTIFICACIÓN Y SERVICIOS IZENPE, S.A.

ONDARE GARBIAN IZANDAKO ALDAKETEN EGOERA ORRI LABURTUA, 2016KO ETA
2015EKO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIEI DAGOKIENA
(Eurotan adierazita)

A) Aitortutako sarreraren eta gastuen egoera-orriak

	2016	2015
Galdu-irabazien kontuaren emaitza	650.926	158.303
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	650.926	158.303

B) Ondare garbiko aldaketen egoera-orria guztira

	Kapital eskrituratu	Erreserba	Aurreko ekitaldietako emaitzak	Ekitaldiko emaitza	Guztira
2014ko abenduaren 31ko saldoa	1.200.000	13.814	(158.352)	8.700	1.064.162
Aitortutako sarrerak eta gastuak	-	-	-	158.303	158.303
2014ko ekitaldiko mozkinaren banaketa aurreko ekitaldietako emaitza negatiboetan	-	-	8.700	(8.700)	-
2015eko abenduaren 31ko saldoa	1.200.000	13.814	(149.652)	158.303	1.222.465
Aitortutako sarrerak eta gastuak	-	-	-	650.926	650.926
2015eko ekitaldiko mozkinaren banaketa erreserbetan	-	8.651	-	(8.651)	-
Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboetan	-	-	149.652	(149.652)	-
2016ko abenduaren 31ko saldoa	1.200.000	22.465	-	650.926	1.873.391



ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA - EMPRESA DE CERTIFICACIÓN Y SERVICIOS, IZENPE, SA

2016ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion urteko kontu laburtuen memoria laburtua
(Eurotan adierazita)

1. OHARRA. IZAERA ETA JARDUERA NAGUSIAK

IZENPE, SA ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA 2002ko ekainaren 7an eratu zen sozietate anonimotzat denboraldi mugagaberako. Sozietatea 2003ko maiatzaren batean hasi zen jardunean. 2003ko ekainaren 25ean, ohiko batzar unibertsalean erabaki zen, 2003ko uztailaren 30ean baimendutako eskrituraren indarrez, haren izendapen soziala aldatzea honako honekin: ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA – EMPRESA DE CERTIFICACIÓN Y SERVICIOS IZENPE, SA. Helbide soziala Gasteizen du, Mediterraneoaren hiribidearen 14 zenbakian. Sozietatearen instalazio nagusiak Gasteizen daude, helbide honetan: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71 zk., 1. solairua.

2009ko martxoaren 27an Akziodunen Batzar Nagusiak hartutako erabakiaren bidez, sozietatearen estatutu sozialak aldatu ziren, Sektore Publikoaren kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legean ezarritakora egokitzeko. Horren bidez ezartzen da sozietatea bitarteko propietat hartuko dela Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte – EJI, SArekiko, Bizkaiko Foru Aldundiaren Informatika Sozietatea – Lantik, SArekiko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Informatika Zerbitzuen Foru Elkarte – IZFE, SArekiko eta Arabako Kalkulu Gunea – AKGABekiko; eta, aipatutako legearen 24.6 artikuluan ezarritakoa aplikatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekiko, Arabako Foru Aldundiarekiko, Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko eta horien mende dagoen sektore publikoarekiko.

Helburu soziala da telekomunikazio-sareen bidezko gobernu elektronikoaren erabilera sustatzea eta gobernu elektronikoaren garapena indartzea, betiere transakzioen segurtasun, konfidentzialtasun, benetakotasun eta atzerazintasuneko beharrezko bermeekin.

Hauek dira Sozietatearen jarduera nagusiak:

- . Euskal sektore publikoa osatzen duten erakundeen esparruan, segurtasuneko zerbitzu teknikoak eta administratiboak aurkeztea jakinarazpenetan; teknika eta bitarteko elektronikoaren, informatikoaren eta telematikoen bitartez.
- . Pertsona edo erakunde publikoentzat edo pribatuentzat beharrezkoak diren txartel-euskarriak edo erabiltzaile-mailako tituluak edo ziurtagiriak igorri, fabrikatu eta hornitzea.
- . Zerbitzariko titulu edo ziurtagiriak igorri, fabrikatu eta hornitzea.
- . Gobernu elektronikoaren sustatzearekin lotutako aholkularitza-zerbitzuak.



Sozietateak ez du betebeharririk urteko kontu bateratuak aurkezteko. Euroa da urteko kontu laburtuak aurkezteko moneta.

2. OHARRA. URTEKO KONTU LABURTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

2.1 Aplikatzekoa den finantza-informazioaren irudi zehatza eta esparru arauemailea

Erantsita doazen urteko kontu laburtuak Sozietatearen kontabilitate-erregistroetatik lortu dira, eta oro har onartutako kontabilitate-printzipioen eta balorazio-arauen arabera aurkezten dira. Horiek ezarrita daude 1514/2007 Errege Dekretuak onartutako eta 1159/2010 Errege Dekretuaren bidez aldatutako Kontabilitate Plan Orokorrean eta indarrean dauden gainerako merkataritza-legeetan. Hala, adierazitako kontuek Sozietatearen ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi zehatza erakusten dute.

Ez da aparteko arrazoirik irudi zehatza erakusteko kontabilitatearen esparruko lege-xedapenak ez aplikatzeko.

Aurreko ekitaldiko urteko kontuak Batzar Nagusi Unibertsalak onartu zituen 2016ko martxoaren 16an egindako bilkuran.

2.2 Nahitaezkoak ez diren arren aplikatu diren kontabilitate-printzipioak

Kontu laburtuek irudi zehatza erakus dezaten, ez da beharrezkoa izan nahitaezkoa ez den kontabilitate-printzipiorik.

2.3 Ziurgabetasunaren balorazioaren eta balioespenaren alderdi kritikoak

Urteko kontu laburtuak prestatzeak Sozietatearen aldetik eskatzen du zenbait balioespen eta iritzi baliatzea etorkizunarekin inguruan. Horiek etengabe baloratzen dira eta esperientzia historikoa eta beste faktore batzuetan oinarrituta, barne direla egungo inguruabarretan arrazoizkotzat jotzen diren etorkizuneko gertakariak.

Funtzionatzen ari den enpresaren printzipioa

Egun, akziodunek Sozietateari laguntza finantzarioa ematen jarraitzen dute. 2015eko abenduaren 31n, Sozietatearen emaitza mozkineko 158.303 € zen. Beraz, jadanik konpentsatu ziren aurreko ekitaldietako galerak. 2016ko abenduaren 31n, Sozietatearen emaitza 650.926 euro da, eta ondare garbia, ekitaldia ixtean, kapital sozialaren gainetik dago 673.391 eurotan. Etorkizunean litezkeen galerak konpentsatu beharko balira, soberakin hori erabiliko litzakete; horrela, enpresaren jarraitutasuna bermatzen laguntzeko.

Aurreko paragrafoetan deskribatutakoaren arabera, Administrazio Kontseiluko kideek funtzionatzen ari den enpresaren printzipioari jarraituz aurkeztu dituzten urteko kontu laburtu hauek.



2.4 Informazioa alderatzea

Galdu-irabazien kontu laburtuaren balantze laburtuari eta ondare garbiko alaketen egoera-orri laburtuari dagozkien zifrak, 2016ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldikoak, guztiz alderagarriak dira aurreko 2015eko ekitaldikoekin.

2.5 Zenbait kontu-sailetan jasotako elementuak

Ez da balantze laburtuko bi kontu-sailetan edo gehiagotan erregistratutako ondare-elementurik.

2.6 Aldaketak kontabilitate-irizpideetan

Urteko kontu laburtu hauei dagokien ekitaldian, ez da aldaketarik izan kontabilitate-irizpideetan aurreko ekitaldian aplikatutakoekiko.

2.7 Akatsak zuzentzea

Urteko kontu laburtu hauei dagokien ekitaldian, ez da beharrezkoa izan aurreko ekitaldietako edo ekitaldi bereko akatsik zuzentzea.

3. OHARRA. EMAITZA APLIKATZEA

Ekitaldian, zergen ondorengo emaitza positiboa lortu da (650.926,26 euro); eta 2016ko ekitaldiko emaitza banatzeko proposamena, Sozietatearen administratzaileek Akziodunen Batzar Nagusiari iradokitakoa, honako hau da:

<u>Banaketa-oinarria</u>	<u>Zenbatekoa</u>
<u>Galdu-irabazien kontuaren saldoa</u>	<u>650.926,26</u>
Guztira	650.926,26
 <u>Banaketa</u>	
	Zenbateko
a	
Borondatezko erreserbara	585.833,63
<u>Legezko erreserbara</u>	<u>65.092,63</u>
Guztira	650.926,26

Emaitzaren banaketak bete egiten ditu Sozietatearen estatutuetan eta indarrean dagoen araudian ezarritako eskakizunak eta mugak. Ez da konturako dibidendurik banatu ekitaldian, eta ez dago inolako mugarik haiek ez banatzeko.

2015eko ekitaldian, zergen ondoren 158.302,56 euroko emaitza positiboa lortu zen. 8.651,05 euro banatu ziren lege-erreserbarako, eta emaitzazko zatia aurreko ekitaldietako galerak konpentsatzeko.



4. OHARRA. ERREGISTRATZEKO ETA BALORATZEKO ARAUAK

Urteko kontu laburtuak indarrean dagoen Kontabilitate Plan Orokorrean adierazitako kontabilitate-printzipioen eta balorazio-arauen arabera aurkeztu dira.

Urteko kontu laburtuak prestatzeko aplikatutako kontabilitate-printzipioak eta balorazio-arauak jarraian deskribatzen dira:

a) **Ibilgetu ukiezina**

Informatika-aplikazioak

Hirugarrenengandik eskuratutako informatika-programetarako lizentziak sortutako kostuetan oinarrituta kapitalizatzen dira; berariazko programa erabiltzeko lizentziak horiek eskuratu eta prestatzeko kostuetan, alegia. Kostu horiek haien balio-bizitzan amortizatzen dira. Balio-bizitza 4 urtekoa dela zenbatesten da.

Informatika-programak mantentzearekin lotutako gastuak gastutzat aitortzen dira egiten direnean.

b) **Ibilgetu materiala**

Ibilgetu materialeko elementuak eskuratzeko-prezioaren edo produkzio-kostuaren arabera aitortzen dira, horri kenduta amortizazio metatua eta aitortutako galeren zenbateko metatua.

Ibilgetu materialaren ondasunak zabaldu, berritu edo hobetzeko kostuak ondasunaren balio handieneko aktiboari gehitzen zaizkio, soilik, horrek berekin dakarrenean haien ahalmena edo produktibitatea areagotzea eta balio-bizitza luzatzea, eta ordezkatu izanagatik inbentarioan baja ematen zaizkien elementuen kontabilitate-balioa zein den jakin edo zenbatetsi daitekeenean.

Konponketa garrantzitsuen kostuak horien zenbatetsitako balio-bizitzan aktibatu eta amortizatzen dira. Errepikatzen diren mantentze-gastuak, berriz, galdu-irabazien kontu laburtuaren kontra kargatzen dira gastu horiek egiten diren ekitaldian.

Ibilgetu materialaren amortizazioa (amortizatzen ez diren lurrak salbuetsita) sistematikoki kalkulatu da amortizazio linealeko metodoari jarraituz, haren balio-bizitza zenbatetsiaren arabera eta kontuan izanda haren funtzionamenduagatik, erabileragatik eta gozamenagatik benetan izandako balio-galera. Ibilgetu materialeko elementu multzo bakoitzerako zenbatetsitako balio-bizitzaren xehetasuna hau da:

Elementu	% amortizazioa
Altzariak	% 15
Informazio-	% 25

c) **Errentamenduak eta antzeko eragiketak**

Titulartasunaren ondoriozko arrisku eta mozkinen zati garrantzitsu bat errentatzaileak gordetzen ditueneko errentamenduak errentamendu operatibotzat sailkatzen dira.



Sozietateak errentari gisa diharduenean, errentamendu-gastuak linealki egozten zaizkio emaitzen kontuari kontratuaren indarraldian, kontratu horretan haiek ordaintzeko ezarritako modua edozein izanik ere. Kontratuan ezarri izan balira horretarako pizgarriak errentatzailearen aldetik (horrek errentariari legozkiokeen ordainketak egitea), pizgarri horien ondoriozko sarrerak emaitzara egozten dira kontratu horren kostuetako murrizketa gisa, modu linealean, errentamendu-gastuen kasuan bezala.

d) Finantza-aktiboak

Kobratzeko dauden kredituak eta kontu-sailak

Kategoria honetan sartzen dira merkataritza-eragiketen ondoriozko kredituak eta merkataritzakoak ez diren eragiketen ondoriozko kredituak.

Kobratu beharreko kredituak eta kontu-sailak finantza-aktiboak dira eta, balantze laburtuan, honako atal hauetan sartzen dira: “Enpresentzako kredituak” eta “Merkataritzako zordunak eta kobratzeko bestelako kontuak”.

Finantza-aktibo horiek, hasiera batean, duten arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira, barne direla zuzenean egozgarriak zaizkien transakzio-kostuak, eta, ondoren, kostu amortizatuaren arabera, interes-tasa efektiboa kontuan izanda sortutako interesak aitortuta; berori ulerturik tresnaren liburu-etako balioa berdintzen duen eguneratze-tasa gisa, mugaegunera arteko dagozkion eskudiru-fluxu zenbatetsi guztiakin. Gehienez urtebeteko mugaeguna duten merkataritza-eragiketen ondoriozko kredituak, berriz, hasierako aitortenaren unean –eta ondoren ere– balio izendatuaren arabera baloratzen dira, baldin eta fluxuak ez eguneratzearen eragina garrantzitsua ez bada.

Ekitaldiaren itxieran, gutxienik, balio-narriaduraren ondorioz beharrezkoak diren balorazio-zuzenketak egiten dira, zorretan dauden zenbateko guztiak kobratuko ez direnaren ebidentzia objektiboa badago.

Balio-narriaduraren ondoriozko galeraren zenbatekoa da honako hauen arteko aldea: batetik, aktiboaren liburu-etako balioa eta, bestetik, zenbatetsi diren etorkizuneko eskudiru-fluxuen uneko balioa (hasierako aitortenaren unean interes-tasa efektiboa deskontatuta). Balio-zuzenketak eta, hala badagokio, haien itzulketa ere, galdu-irabazien kontu laburtuan aitortzen dira.

e) Finantza-pasiboak

Ordaintzeko zorrak eta kontu-sailak

Ordaintzeko zorrak eta kontu-sailak atalaren barruan, merkataritza-eragiketen ondoriozko zorrak eta merkataritzaz bestelako eragiketen zorrak sartzen dira.

Zor horiek, hasiera batean, zuzenean egozgarriak diren transakzio-kostuen arabera doitutako euren arrazoizko balioa kontuan izanda aitortzen dira. Ondoren, euren kostu amortizatuaren arabera erregistratzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoari jarraituz.



Gehienez urtebeteko mugaeguna duten merkataritza-eragiketen ondoriozko zorrak, kontratuzko interes-tasarik ez badute, hasierako unean eta ondoren ere balio izendatuaren arabera baloratzen dira, baldin eta eskudiru-fluxuak ez eguneratzearen eragina garrantzitsua ez bada.

f) Izakinak

Hasiera batean beren eskuratze-prezioaren arabera baloratzen dira, eta prezio horri erosketa-kostuak gehitzen zaizkio.

Salgaien kostua izakinetakoko unitateei esleitzeko, batez besteko prezio haztatuaren metodoa aplikatzen da.

Balio garbi gauzagarria txikiagoa denean haien eskuratze-preziora edo produkzio-kostua baino, hori islatzeko, dagokion balorazio-zuzenketa egiten da, ekitaldiko emaitzen kontuaren kargura.

Balio garbi gauzagarria negozio-jardunbide normalean zenbatetsitako salmenta-preziora da, salmenta egiteko zenbatetsitako beharrezko kostuak kenduta.

Balio-zuzenketa sorrarazten duten inguruabarrek izateari uzten badiote, zuzenketaren zenbatekoa itzuli egiten da eta sarreratzat aitortzen da galdu-irabazien kontu laburtuan.

g) Transakzioak atzerriko monetan

Sozietatearen moneta funtzionala euroa da. Ondorioz, euroaz bestelako dibisetako eragiketak "atzerriko monetan" egindakotzat hartzen dira, eta eragiketen datetan indarrean dauden kanbio-tasen arabera erregistratzen dira.

Balantze laburtuaren datan, atzerriko monetako aktibo eta pasibo monetarioak itxiera-datan indarrean dauden tasen arabera bihurtzen dira. Kontu-sail monetarioen kanbio-aldaketak, bai horiek likidatzen direnean, bai itxierako kanbio-tasara bihurtzean, urtearen emaitzan aitortzen dira.

h) Mozkinen gaineko zerga

Mozkinen gaineko zergaren ondoriozko gastua edo sarrera da kontzeptu horregatik ekitaldian sortzen den zenbatekoa; eta biltzen du, bai zerga korrontearen, bai zerga geroratuaren ondoriozko gastua edo sarrera.

Bai zerga korrontearen, bai zerga geroratuaren ondoriozko gastua edo sarrera galdu-irabazien kontu laburtuan erregistratzen da. Dena den, ondare garbian aitortzen da ondare garbian zuzenean erregistratzen diren kontu-sailekin lotutako zerga-efektua.

Zerga korrontearen ondoriozko aktiboak edo pasiboak agintari fiskalei ordaintzea edo haiengandik jasotzea espero den kopuruen arabera baloratuko dira, ekitaldi bakoitzaren itxiera-datan indarrean dauden edo onartuta eta argitaratzeko zain dauden arauen arabera.



Zerga geroratuak kalkulatzeko, metodo pasiboari jarraitzen zaio, aktibo eta pasiboen zerga-oinarrien eta horien liburu-etako balioen artean sortzen diren denborazko aldeen gainean. Alabaina, zerga geroratuak sortzen badira transakzioaren unean kontabilitate-emaizaren eta zerga-oinarriaren gainean eraginik ez duen negozio-konbinazioaz bestelako transakzio batean aktibo edo pasibo bat hasiera batean aitortzearen ondorioz, zerga horiek ez dira aitortzen. Zerga geroratuak zehazteko, balantze laburtuaren datan onartu diren edo onartzeko zorian dauden zerga-tasak eta araudia aplikatzen dira, zerga geroratuaren ondoriozko dagokion aktiboa gauzatzen denean edo zerga geroratuaren ondoriozko pasiboa likidatzen denean haiek aplikatzea espero denean.

Zerga geroratuaren ondoriozko dagokion pasiboa aitortzen da zergapegarriak diren denbora-alde guztietarako; salbu eta denbora-aldearen jatorria bada hasiera batean aitortzea merkataritza-funts bat edota hasiera batean aitortzea beste aktibo eta pasibo batzuk negozio-konbinazio ez den transakzio batean, gauzatzeko unean emaitza fiskalean eta kontabilitate-emaiztan eraginik ez duen eragiketa batean.

Bestalde, zerga geroratuaren ondoriozko aktiboak (denbora-alde kengarriekin identifikatzen dira) aitortzen dira, soilik, litekeentzat jotzen denean Sozietateak etorkizunean behar adinako irabazi fiskalak izango dituela, horiekin zergak ordaindu ahal izateko, eta irabazi horien jatorria ez denean bestelako aktiboak eta pasiboak hasiera batean aitortzea negozio-konbinazio ez den eragiketa batean, eta horrek eraginik ez badu ez emaitza fiskalean, ezta kontabilitate-emaiztan ere. Zerga geroratuaren ondoriozko gainerako aktiboak (zerga-oinarri negatiboak eta konpentsatzeko dauden kenkariak) aitortzen dira, soilik, litekeentzat jotzen denean Sozietateak etorkizunean behar adinako irabazi fiskalak izango dituela horiekin zergak ordaindu ahal izateko.

i) Sarrerak eta gastuak

Gastuak eta sarrerak sortzapen-printzipioaren arabera erregistratzen dira, eta, bidezkoa den kasuetan, bien arteko korrelazio bat ezartzen da.

Sarrerak erregistratzen dira jaso beharreko kontraprestazioaren arrazoizko balioaren arabera eta adierazten dituzte kobratu beharreko zenbatekoak entregatutako ondasunengatik eta egindako zerbitzuengatik Sozietatearen jarduera arruntan, kenduta itzulketak, beharpenak eta balio erantsiaren gaineko zerga.

Sozietateak aitortzen ditu sarrerak horien zenbatekoa fidagarritasunez balora daitekeenean, etorkizuneko mozkin ekonomikoak ziurrenik Sozietatera isuriko direnean eta jarduera bakoitzerako berariazko baldintzak betetzen direnean. Salmentarekin lotutako gorabehera guztiak ebatzi arte, ez da uste fidagarritasunez balora daitekeenik sarreren zenbatekoa. Sozietateak bere zenbatespenak oinarritzen ditu emaitza historikoetan, kontuan izanik bezero mota, transakzio mota eta hitzarmen bakoitzaren baldintza zehatzak.

j) Enplegatuentzako prestazioak

Sozietateak pentsio-plan bat darabil. Planak finantzatzen dira erakunde aseguratzaileei ordainketak eginda edo kanpotik kudeatutako funtsen bidez. Horiek aldizkako kalkulu aktuariaren bidez finkatzen dira. Langileak sartuta daude Araba Pensiones borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundearen (BGAE), enpresa anitzeko modalitatean, errenta finkoko sistemaren barruan. 2016an ez dute ekarpenik egin, ezta 2015ean ere.



k) **Lotutako aldeen arteko transakzioak**

Oro har, taldeko enpresen arteko eragiketak hasieran kontabilizatzen dira haien arrazoizko balioaren arabera. Hala badagokio, hitzartutako prezioa bat ez badator arrazoizko balioarekin, eragiketaren errealitate ekonomikoari erreparatuz erregistratzen da aldea. Dagozkion arauetan jasotakoaren arabera egiten da ondorengo balorazioa.

5. OHARRA. IBILGETU MATERIALA ETA UKIEZINA

5.1. Ibilgetu materialaren xehetasuna, eta ekitaldian izandako mugimenduarena, ustiapenari zuzenean lotutako ondasunei dagokienez, honako hau da:

KOSTUA

Elementua	Saldoa 2015/01/01	Altak	Saldoa 2015/12/31	Altak	Saldoa 2016/12/31
Altzariak	61.418	-	61.418	-	61.418
Informazio-prozesurako ekipoak	287.665	8.077	295.742	-	295.742
Kostua guztira	349.083	8.077	357.160	-	357.160

AMORTIZAZIO METATUA

Elementua	Saldoa 2015/01/01	Ekitaldiaren zuzkidura	Saldoa 015/12/31	Ekitaldiaren zuzkidura	Saldoa 2016/12/31
A.A. Altzariak	(56.626)	(4.744)	(61.370)	(48)	(61.418)
A.A. Informazio-prozesurako ekipoak	(256.203)	(11.553)	(267.756)	(11.515)	(279.271)
Amortizazio metatua guztira	(312.829)	(16.297)	(329.126)	(11.563)	(340.689)

KONTABILITATE BALIO GARBIA

Elementua	2015/12/31	2016/12/31
Altzariak	48	-
Informazio-prozesurako ekipoak	27.986	16.471
Guztira	28.034	16.471

Egungo eta aurreko ekitaldiaren itxieran, guztiz amortizatutako elementuen jatorrizko kostua hau da:

Elementua	2016/12/31	2015/12/31
Altzariak	61.418	-
Informazio-prozesurako ekipoak	249.773	249.680
Guztira	311.191	249.680



5.2. Ibilgetu ukiezinean sartutako kontu-sailen xehetasuna eta mugimendua hauek dira:

KOSTUA	Saldoa	Altak eta	Saldoa	Altak eta	Saldoa
Elementua	2015/01/01	bajak	2015/12/31	bajak	2016/12/31
Informatika-aplikazioak	1.654.451	-	1.654.451	-	1.654.451
Kostua guztira	1.654.451	-	1.654.451	-	1.654.451

AMORTIZAZIO METATUA

Elementua	Saldoa	Ekitaldiaren	Saldoa	Ekitaldiaren	Saldoa
	2015/01/01	Zuzkidura	2015/12/31	zuzkidura	2016/12/31
Informatika-aplikazioak	(1.651.108)	(3.343)	(1.654.451)	-	(1.654.451)
Amortizazio metatua guztira	(1.651.108)	(3.343)	(1.654.451)	-	(1.654.451)

6. OHARRA.FINANTZA AKTIBOAK

KPOaren bederatzigarren erregistro- eta balorazio-arauan ezarritako finantza-tresnen kategoria bakoitzaren liburuetakoa balioa hau da:

6.1. Epe laburrerako finantza-aktiboak

	Kredituak/Besteak	
	2016/12/31	2015/12/31
Kobratzeko dauden kredituak eta kontu-sailak	1.371.014	1.286.482
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	762.419	364.425
Guztira	2.133.433	1.650.907

Kobratzeko dauden kredituak eta kontu-sailak

Epigrafe hau honela dago banakatuta:

	2016/12/31	2015/12/31
Salmenta eta zerbitzugintzako bezeroak	634.326	898.898
Bezeroak, taldeko enpresak eta elkartuak (11. oharra)	229.819	80.715
Fidantzak	5.980	5.980
Epe laburrera ezarritako gordailuak	500.000	300.000
Langileak	889	889
Guztira	1.371.014	1.286.482



Salmenta eta zerbitzugintzako bezeroen saldoa narriaduraren ondoriozko zuzenketez garbi azaltzen da. Ekitaldian ez da beharrezkotzat jo inolako zenbatekorik narriatzea (779 euro aurreko ekitaldian).

Fidantzak, 5.980,40 €-ko balioaz, EHUrekiko eta Gasteizko Udalarekiko bi fidantzei dagozkie.

Bezeroei kobratzeko kontuen narriaduraren ondoriozko balorazio-zuzenketen aitortpena eta itzulketa "Bestelako ustiapen-gastuak" barruan dago, galdu-irabazien kontu laburtuan.

2015ean, epe laburrean jaso ziren finantza-erakunde batekin izandako bi gordailuak, 200.000 euroko eta 100.000 euroko zenbatekoek eta 2016ko ekaineko eta apirilko mugaegunez, hurrenez hurren, eta % 0,2ko interesa-sortzapenez.

Epe laburrera ezarritako gordailuetan, finantza-erakunde batekin izandako bi gordailu jasotzen dira, 200.000 euroko eta 100.000 euroko zenbatekoek. Horien mugaeguna 2016ko martxoa eta ekaina zen, luzapen automatikoaz, eta 2017ko apirila, hurrenez hurren; % 0,05eko interes-sortzapenez.

7. OHARRA.FINANTZA PASIBOAK

Epe laburrerako finantza-pasiboak

	Bestelakoak	
	2016/12/31	2015/12/31
Ordaintzeko zorrak eta kontu-sailak	207.757	298.370
Bestelako finantza-pasiboak	1.294	1.734
Langileak. Ordaintzeke dauden ordainsariak	-	407
Guztira	209.051	300.511

Ordaintzeko zorrak eta kontu-sailak

Epigrafe honen saldoa jarraian adierazten den xehetasunari dagokio, epigrafe honetarako eta aurrekorako:

	2016/12/31	2015/12/31
Hornitzaileak	164.020	252.444
Hornitzaileak, taldeko enpresak eta elkartuak (11. oharra)	43.737	45.926
Langileak Ordaintzeke dauden ordainsariak	-	407
Guztira	207.757	298.777

Sozietateak kreditu-muga bat du kreditu-txarteleterako: ekitaldian 12.000 euro erabilgarri, 2015eko ekitaldian bezala.



8. OHARRA. FUNTS PROPIOAK

2016ko eta 2015eko abenduaren 31n, kapital soziala 20.000 akzio izendunek osatzen zuten. Guztiz harpidetuta eta ordainduta zeuden, eskubide eta obligazio berberak zituzten eta hurrenez hurren zenbakituta zeuden unitatetik hasita, akzio bakoitzeko 60 euroko balio nominalaz.

Akziodunen Batzar Nagusiak 2009ko martxoaren 27an hartutako erabakian, ezarri zen akzioen inter vivos eskualdatzea eta kapital-zabalkuntzak lotuta egongo direla Sozietateko eta kapital osorik publikoa duten euskal sektore publikoko kide diren erakundeetako bazkideen aldeko lehentasunezko eskuratzeko eskubidera, Sozietatearen estatutuetan zehazten diren baldintzetan.

Sozietateak erreserba hauek ditu:

	2016/12/31	2015/12/31
-Legezko erreserba	12.386	3.735
-Borondatezko erreserbak	10.079	10.079
Guztira	22.465	13.814

Erreserba horiek erabilgarritasun hau dute:

- a) Legezko erreserba: Legezko erreserba Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bategineko 274. artikulua araberaz zuzkitu da. Bertan ezartzen da Sozietateak mozkinaren % 10 legezko erreserbarako zuzkitu beharko duela, kapital sozialaren % 20ra iritsi arte.

Legezko erreserba erabil daiteke jada handituta dagoen kapitalaren % 10 gaitutako duen bere saldoaren zatian kapitala handitzeko. Aipatutako helburua salbuetsita, eta kapital sozialaren % 20 gaitutako ez duen artean, erreserba galerak konpentsatzeko soilik erabil daiteke, baldin eta helburu horretarako bestelako nahikoa erreserba erabilgarri ez badago.

- b) Borondatezko erreserbak: ez dago inolako mugarik erreserba horiek banatzeko.

Sozietateak ez du ez aukerarik, ez kontraturik berorren akzioetarako. Ekitaldi honetan eta aurrekoan, sozietateak ez du jaso diru-laguntzarik edo legaturik jaso akziodunengandik.



Sozietateak, oraindik baditu zerga geroratuaren ondoriozko aktiboak, 248.286 euroko zenbatekoaz (248.286 euro 2015ean), etorkizunean aplikatu ahal izateko.

Urteak	2016		2015	
	KUOTAREN GAINEAN BATERAKO MUGA DUTEN KENKARIAK	KENKARIAK MUGARIK GABE KUOTAREN GAINEAN	KENKARIAK MUGAREKIN KUOTAREN GAINEAN	KENKARIAK MUGARIK GABE KUOTAREN GAINEAN
2002	38.300	2.141	38.300	2.141
2003	31.647	10.818	31.647	10.818
2005	6.077	3.177	6.077	3.177
2006	31.091	15.627	31.091	15.627
2007	21.935	-	21.935	-
2008	30.625	-	30.625	-
2009	36.089	-	36.089	-
2010	14.895	-	14.895	-
2011	713	-	713	-
2012	674	-	674	-
2013	24	-	25	-
2014	3.764	-	3.764	-
2015	688	-	688	-
2016	-	-	-	-
	216.523	31.763	216.523	31.763

Sozietateak, aurreko ekitaldietako zerga-oinarriak aplikatu ondoren, oraindik baditu konpentsatzeko dauden zerga-oinarri negatiboak, 152.721 euroko zenbatekoaz, 2013an sortuak, eta 48.492 euroko zenbatekoaz, 2010eko ekitaldian sortuak.

Zuhurtzia-printzipioaren arabera, denbora-alde kengarrirei, zerga-oinarri negatiboak eta erabili ez diren kenkari eta bestelako abantaila fiskalei dagozkien zerga geroratuaren ondoriozko aktiboak besterik ez dira aitortuko; Sozietateak, aktibo horiek aplikatu ahal izateko, etorkizunean irabazi fiskalak izatea litekeena denean.

Indarrean dagoen legeriak ezartzen duenez, zergak ezin dira behin betiko likidatutzat hartu agintari fiskalek aitortpenak ikuskatzen ez dituzten bitartean, edota lau urteko preskripzio-epaia betetzen ez den bitartean. 2016ko eta 2015eko abenduaren 31n, Sozietateak ikuskatzeko irekita zituen mugaeguneratu gabeko eta ikuskatzeko zain zeuden ekitaldietako zerga guztiak.



Sozietatearen ustez, behar bezala likidatu ditu zerga guztiak. Hortaz, zerga-agintariak ikuskapenik egingo balute, ez du espero agerian jarriko denik mota horretako pasiborik, urteko kontu hauetan oro har eragina izango duenik.

10. OHARRA. SARRERAK ETA GASTUAK

Sozietateak 2016ko eta 2015eko ekitaldietan egindako fakturazioen xehetasuna jarraian azaltzen da:

<u>Deskribapena</u>	<u>2016</u>	<u>2015</u>
Eusko Jaurlaritzza		
(Saila eta erakunde autonomoak)	1.453.124	1.204.816
Osakidetza – Euskal Osasun Zerbitzua	403.232	490.126
Bazkideak	331.160	158.087
Aldundiak	85.992	39.906
Bestelako sozietate publikoak	314.086	364.999
Pribatuak	925.679	641.691
Guztira	3.513.274	2.899.625

Ekitaldi honetan eta aurrekoan Sozietateak egindako hornikuntzen xehetasuna hau da:

<u>Deskribapena</u>	<u>2016</u>	<u>2015</u>
Salgaien kontsumoa	179.562	98.820
Salgaien izakin-aldakuntza	(32.158)	61.250
Bestelako enpresek egindako lanak	1.350.124	1.273.385
Guztira	1.497.528	1.433.455

2016ko eta 2015eko ekitaldietan, Sozietateak egindako erosketa guztiak merkatu nazionalen izan dira.

Ekitaldi honetan eta aurrekoan kontabilizatutako langile-gastuen banakapena hau da:

<u>Deskribapena</u>	<u>2016</u>	<u>2015</u>
Soldatak eta alokairuak	733.742	746.935
Enpresaren kargurako Gizarte Segurantzza	185.296	187.084
Bestelako gastu sozialak	15.827	12.282
Hornidurak	-	(17.345)
Guztira	934.865	928.956

Bestelako gastu sozialetan biltzen dira euskarazko prestakuntzarako gastuak, 2015ean hasitakoak eta 2016ko ekitaldi osoan jarraitutakoak, baita 2016ko ekitaldian jasotako arriskuen prebentzioaren arloko ikastaroak ere.



2015eko ekitaldiko horniduren 17.345 euroak gehiegizko hornidura baten ondoriozko itzulketa bati zegozkion. Hornidura hori 2013an kontabilizatu zen kalte-ordainen kontuan.. 2015eko martxoan, epaia atera ondoren, saldoa erregularizatu zen eta zenbateko hori langileei ordaintzearen ondoriozko gehiegizko hornidurako kontuan kontabilizatu zen.

Ekitaldi honetan eta aurrekoan kontabilizatutako ustiapeneko bestelako gastuen banakapena hau da:

Deskribapena	2016	2015
Errentamenduak eta kanonak	68.588	67.877
Zerbitzu profesional independenteak	33.184	38.350
Garraioak	38.786	25.936
Aseguru-primak	16.355	15.417
Bankuko zerbitzuak eta antzekoak	106	134
Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak	3.460	288
Hornidurak	4.907	4.846
Bidaia-gastuak	14.174	10.091
Posta	8.774	4.078
Beste zenbait zerga (EJZ)	1.196	2.296
Doikuntza negatiboak, BEZ zirkulatzailerak	226.110	187.375
Merkataritza-eragiketen narriadura	-	779
Guztira	415.640	357.467

Doikuntza negatiboak, BEZ zirkulatzailerak: Zerga Administrazioaren 2014/12/16ko 2/2014 Zirkularra aplikatuz (erakunde publiko jakin batzuei egindako zerbitzuei BEZa ez aplikatzeari buruzkoa), behin jaso ondoren 2015eko erdialdean ildo bereko baieztapena Arabako Foru Aldunditik, Izenpek prorrate-araua aplikatzen du. Hala, 2016ko ekitaldiko lehen hiru hiruhilekoetan, 2015ean kalkulaturako prorrate bera (% 41) aplikatu du. Laugarren hiruhilekoan, berriro kalkulatu du BEZa duten salmenten eta guztizko salmenten arteko proportzio berria, eta dagokion doikuntza egin du. Kalkulu horretatik ateratzen dugu 2016rako BEZ jasanetik % 35 kendu behar dela. Hau da, Izenpek, 2016. urtean, BEZ jasanaren % 35 besterik ez du kentzen. Hala, gainerakoa, 226.110 €, ekitaldiko gastu handiagoa da eta BEZ zirkulatzaileraren doikuntza negatiboei dagokien 6341 kontuan dago kontabilizatuta.

Ekitaldi honetan eta aurrekoan kontabilizatutako aparteko gastu eta sarreraren banakapena hau da:

Deskribapena	2016	2015
Ezohiko gastuak	(1.008)	(687)
Ezohiko sarrerak	70	(17)
	(938)	(704)



11. OHARRA. ELKARRI LOTUTAKO ALDEEKIN EGINDAKO ERAGIKETAK

Sozietatearen trafikoko ohiko ondasun eta zerbitzuak elkarri lotutako aldeengandik eskuratzen/egiten dira merkatuko baldintza normaletan.

Urteko kontu laburtuak aurkezteari dagokionez, bi kasutan hartuko da beste enpresa edo erakunde bat taldeko partaidetzat: biak zuzeneko edo zeharkako kontrol-harreman jakin batez lotuta daudenean, baldin eta harreman hori Merkataritza Kodearen 42. artikuluan sozietate taldeentzat aurreikusitakoaren antzekoa bada; edo enpresa horiek batera diharduen/diharduten pertsona fisiko edo juridiko batek edo gehiagok kontrolatzen dituztenean/dituztenean edo akordio edo estatutu-klausulen arabera zuzendaritza bera dutenean.

2016an eta 2015ean, elkarri lotutako aldeekin egindako transakzioen xehetasuna (BEZa barne, dagokionean) honako hau da:

	Eurotan			
	2016		2015	
	Jasotako		Jasotako	
	zerbitzuen Bolumena	Egindakoena	zerbitzuen Bol.	Egindakoena
EJIE, S.A.	529.581	12.356	506.838	35.315
LANTIK, S.A	-	186.431	-	72.185
IZFE, S.A	-	132.374	-	64.074
ARABAKO KALKULU GUNEA	-	-	-	353
	529.581	331.161	506.838	171.927

Elkarri lotutako aldeekiko balantze laburtuan erregistratutako saldoak hauek dira:

	Eurotan			
	2016		2015	
	Saldo zordunak	Saldoak hartzekodu	Saldo zordunak	Saldoak hartzekodu
EJIE, S.A	30	(43.737)	13.777	(45.926)
LANTIK, S.A	136.936	-	18.086	-
IZFE, S.A	92.853	-	48.852	-
ARABAKO KALKULU GUNEA.	-	-	-	-
	229.819	(43.737)	80.715	(45.926)

Administrazio-organoa eta goi-zuzendaritzako langileak

2016ko eta 2015eko ekitaldietan, administratzaileek ez dute ordainsaririk jaso, ez zaizkie aurrerakinak edo kredituak eman, eta ez dute haien kontura berme-titulu gisako obligaziorik bere gain hartu. Era berean, Sozietatearen antzinako edo gaur egungo administratzaileentzako pentsioen eta bizi-aseguruen arloko obligaziorik ez du hartu Sozietateak.



2016ko eta 2015eko ekitaldian Sozietateko goi-zuzendaritzako kideek jasotako ordainsarien zenbatekoa 73.361 euro eta 79.999 euro izan da, hurrenez hurren.

Administratzaileen interes-gatazkako egoerak

Sozietateko administratzaileek eta horiei lotutako pertsonak ez dute izan KSLTBaren 229. artikuluan xedatutakoaren arabera jakinarazi beharreko inolako interes-gatazkako egoerarik.

12. OHARRA. BESTELAKO INFORMAZIOA

Langileei buruzko informazioa

2016ko eta 2015eko amaieran, uneko ekitaldian eta aurrekoan enplegatutako pertsonen batez besteko kopurua eta dauden enplegatuen kopurua honako hau da:

kategoria	2016ko		Batez bestekoa		Plantilla 2016.12.31n		2015ko batez bestekoa		Plantilla 2015.12.31n	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak		
Administratzaileak	1	1	11	1	11	1	1	1		
Zuzendariak	-	1	-	1	-	1	-	1		
Lizentziadunak	5	7	4	7	5	7	5	7		
Administrariak	1	1	1	1	1	1	1	1		
GUZTIRA	1	10	16	10	17	10	1	10		


13. OHARRA. HORNITZAILEEI EGINDAKO ORDAINKETA GERORATZEEI BURUZKO INFORMAZIOA


2016ko ekitaldirako, hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea 31 egun da (32 egun 2015ean).





Diligencia de Firma


En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley de Sociedades de Capital, los Administradores de ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA - EMPRESA DE CERTIFICACIÓN Y SERVICIOS IZENPE, S.A. reunidos el día 13 de marzo de 2017, formulan las presentes Cuentas Anuales Abreviadas (Balance Abreviado, Cuenta de Pérdidas y Ganancias Abreviada, Estado Abreviado de Cambios en el Patrimonio Neto y Memoria Abreviada de la Sociedad correspondientes al ejercicio anual terminado el 31 de diciembre de 2016, comprenden 20 páginas numeradas de la 1 a la 20.



D. Xabier Patxi Arrieta Goiri
Director de Informática y Telecomunicaciones de Eusko Jaurlaritzaren Gobierno Vasco (Presidente)



D. Kepa Odriozola Azula
Director de LANTIK, S.A. (Vicepresidente)


Dña. Ana del Val Sancho
Directora de servicios generales de Centro de Cálculo de Alava, S.A (CCASA)



D. Jon Iñaki Betolaza San Miguel
Director de Farmacia de Eusko Jaurlaritzaren Gobierno Vasco



D. Javier Bikandi Irazabal
Director de Atención a la Ciudadanía e Innovación y Mejora de la Administración de Eusko Jaurlaritzaren Gobierno Vasco


D. Aitor Urzelai Inza
Director de Planificación y Estrategia - Eusko Jaurlaritzaren Gobierno Vasco



D. Alex Etxeberria Aranburu
Director Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte, A.B.- Sociedad Informática del Gobierno Vasco, S.A. (EJIE)


D. Roberto Ibarretxe Aspiunza
Director de Administración de Lantik, S.A.


Dña. Nerea Martiartu Crespo
Directora General de Buen Gobierno y Transparencia de Diputación Foral de Bizkaia


D. Aitor Olaizola Zubillaga
Director General de Informatika Zerbitzuen Foru Elkarte, Sociedad de Servicios Informáticos, S.A. (IZFE)


D. José Luis Mendiola Ruiz
Responsable Clientes y Operaciones de Inform Zerbitzuen Foru Elkarte, Director de Servicios del Departamento de Trabajo y Justicia Sociedad de Servicios Informáticos, S.A. (IZFE)


D. Juan Ignacio Urresola Arechavala
Eusko Jaurlaritzaren Gobierno Vasco.

